

Bidasoa-aldeko erri-jakintzatik ale batzuk

T. Aranzadiaren omenez, bere Jaiotzaren
Eun-Urte-Betetzeadala-ta.

Por N. ALZOLA GEREDIAGA

1

Altziberriko Prantxixku «intxixua»

Gure amak kontatzen zigun asko aldiz kontu au:

Esaten-tzuela mutill orrek, (Altziberriko (1) Prantxixkuk), Ameriketako anaya ikusi nai zuela.

Eta egun batian andre batek esan-tzizon, birera aterata:

—Esantako itzian al-tzaudez?

—O! Ze'esan dut ba nik?

—Zuk ez-tuzu esaten Ameriketako anaya ikusi nai duzula? Atoz biar bire gurutzia ontara ollo beltz batekin, eta nik erakutziko zattut.

Joan-tzen mutilla olluakiñ, eta andriak esan-tzizon:

—Jarri nere bizkarrian, eta

esan “Arre diabro”, ez esan “Jesus”, bestela erori ingo zera.

Alletu zian toki batera ta zabiltzan dantzan soñua joka berak esautzen zittuen andre xarrak eta zabiltzan pixkorr pixkorr denak.

Gero eraman-tzuen anaya zagon ojera, eta esan-tzizon:

—Orra zure anaya.

Eta mutillak astindu zuen anaya, eta esan-tzizon:

—Zer modu, mutill?

—Ondo, eta i?

—Ni're ondo.

Eta gero ekarri zuen itxera bizkarrian berri.

Eta gero esan-tzizon:

(1) Altziberriko baserrietxea, Oyartzungo bidian dago, Kurutzen inguruan.

—Bueno, oaiñ gaurr arratsian etorri bear duzu guekiñ.

Eta mutillak esan-tzuen:

—Bueno.

Mutillak esan-tzuen itxian, e'tzela kontrabandora joango. Eta geldittu zen oyian. Eta bere lagunak asi ziran gaberdiyan bukaro bat jaten exerita, eta esan-tzuten:

—Gure Prantxixku gixajua nola ote dago bere biatzeko miñekiñ?

Eta orduan pasatu zen, ayen denen gañetik zaldi zuri aundi bat, beñ ikusi e'tzuten bezelakua.

Mutillak e'tzuen segittu nai gausa txarr orrekin, eta joan-

tzen apaizana konfesatzera, eta apaizak esantziyon kenduko ziyola berak dena. Ein bear-tzuela iru illa-betetan iru mendittan lo. Azkeneko illa-betia Aya'ko Arriyan. Eta azkeneko gabian eman-tziyon apaizak jostorrotz-toki bat, eta esan-tziyon:

—Au zure azkeneko gaba. Gabeko amabiyak jotzian, zuk ereki jostorrotz-tokiyo ori. Eta ez izutu. Aittuko diituzu egundaño aittu ez dittuzun biñon soñu aundiyaak: trumoya, tximistak, aiziak, eta botako zattuzte lurrera, biño zure gaitz guziyak or joango dia.

Mutill orrek kunplittu zuen bere penitentziyakin, eta gero geldittu zen beste personak bezela (2).

2

Minazuloko sorgiña

Artzai bat egun batin ardiyak falta'ttula, mendira juan-tzen aken billa.

Aken errestun zuyela, ondolik gizon bat bei (2 b) bat kopetin erdiyin zuela agertu zion.

Eta ordun artu zun gizon aundiya'rek ta aun-tzun minazulo batera, Aranazko Malkorran.

Artzaia an desesperatua zaon, ta an begira asi ta bere ardiyen larruak ikusi zittuen.

Ordun kontu eman-tzun ardi-lapurra zein-tzen.

Arratsa alletu zen, eta su aundi bat egiña zun bere minazuluan.

Sorgiña lukartu zenian, artzaiak artu zun burne bat, eta

(2) Irurogei ta bederlatzi urte inguru ditun Salbadora Ribera Aramburu andreari artu nion, 1959-VII-15n. Irundarra da jaiotez, Katiatik gorantz Oyartzungo bidian dagon Erbittegikoa. Ama oyartzuarra izan zun, Audele baserrietxekoa. Amari entzun zion elezar au.

(2 b) bei = begi.

paatu zun berotzen, ta burnia berotzen-tzen bittarte minazulua itxitzen-tzun arri aundi'ura kendu zun, ta antzin ardi larruek bizkarrtik paatu zittun.

Burni ori orittu zaonian, beitik sartu zion sorgiñari. Baña sorgiñari begiya e'tzion galdu.

Ordun artzaia ete zen lasterka minazulotik.

Artu zun sorgiñak ardi-llarrutik ta artzaiak ardi larruk utzi zittun. Ta ordun sorgiñak uste zun artzaia ardi larrukiñ bazamala, biño artzaia eskautu zen ordun (3).

3

Andre arriya

Da Oyartzungo partian. Eta aren bazterrian da itxe bat. Len zen ermita San Felipe. Eta an joan-tziran neskatxa gazte bat eta mutill gazte bat. Eta ikusi zuten ermita orren barrena, eta an Ama Birjiñak zaukala arrosariyo ederr bat.

Eta neskatxa orrek in-tzuen artu. Eta abitu zian itxe ayekara. Eta atera zitzyoten gizon bat, eliza-guardiya. Eta esan -tziyoten:

—Zer damazute or? Utzi arrosariyu ori lengo tokiyan.

Eta esan-tziyon neskatxak:

—Nik eztut deus artu. Eta deus artu baldin badut, bertan arri biurtu nadillela.

Eta aittu ziyon Ama Birjiñak, eta geldittu zen arri biyurtua. Eta antxen dago beti arriya Oyartzungo kamiyuan, Irungo sarreran, Oyartzun aldera, Bentasko bukaeran (4).

(3) Aranatzeko Fermin Larrachea, amalau urteko mutikoari artu nion, 1960-V-20n. Erriko mutil-lagun bategandik ikasi zun (Aranatzeko Joxe Mari Pikabeagandik).

Tartaloren elezarra da au, baña Tartaloren izenik entzun ere ez dutela egin Aranatzan, esan zidan. Oñarriztat artuera au jarririk, ba-dut asmoa jarraitzeko Aranatzan edo aranaztarrakin, ia argibide geiago arkitzen detan edo.

(4) Salbadora R.A. andreami artu nion 1959-VII-16n. Elezarr au len ere artu zun Manuel Lekuona apaiz euskaltzaiñak, eta **Eusko-Folklore'n** eman zun argitara. Azkenengoz, Vicente Garcia de Diegok ere eman du, erderaz. (**Antología de leyendas de la Literatura Universal**, Lendabiziko tomoan, 343-344-garren orrialdeetan.)

4

Irugurutze

Zen gurutze bat iru gurutzekua, eta San Pablo munduan zabillen denboran ikusi menzuen sakusko bat diru, eta jo omen ostikoz.

Esan omen-tzizon:

—Geldi zaitez or, gizon galgarria.

Eta pixka bat aurrexeo juanta ikusi zituen iru gizon, eta esan ziyon oyeri:

—Or ikusiko duzute gizon galgarri bat.

Eta ayek joan ziran aurrera, eta ikusi zuten xaku ori, eta artu zuten. Esan zuten:

—Oain bear dugu merienda pixka bat.

Eta batek esan-tzuen:

—Ni joango naz Katera.

—Bueno, zuaz.

Ora joan zen denboran, bestiek esan-tzuten:

—Aizak, diru au iruri partitzeko gutxi duk, eta ora etortzian, exerita jarriko duk, eta jo lepuan eta ilko diou.

Eta bestiak, meriendan billa zijuala pentzatu zuen aientzat bientzat benenua ekartzia.

Eta etorri zan meriendakin.

Esan zioten:

—Ixeri, ixeri.

Eta jo zuten, eta lepua autsi.

Eta beste biyak jan-tzuten merienda, eta aundi-aundi ein-tziran.

Eta iruak illak gelditu ziren (5).

(5) Salvadora R.A. andreari artu nion 1959garren urtean.

Gonzalo Menéndez Pidalek eta Elisa Bernisek argitaratu duten **Antología de Cuentos de la Literatura Universal** liburuan (Ramón Menéndez Pidalaren itzaurre sakon batekin), Madrillen, "Labor" Argitzaldean, 1955garren urtean), gai au badakarr, eta lau ipui jartzen ditu: arabiatarren egille izengabekotik artua, bat; Juan Zaragozak latiñetik itxuli zituane-tik, beste bat; Nobellinok idatzi zitun ipuietatik, irugarrena; eta Geoffrey Chaucereren Canterburyko ipui esagutuetatik, laugarrena.

Ez dakit Euskalerrian beste lekuen batean artua izan dan ipui zarr au.

Artuera au, **Gure Herriara** bialdu nun, orain pare bat urte, baña ez dute argitaratu oraindikan.

Artuera berau, eta Bizkaiko Izurtzan XVII mendean bizi izan zan arabarr mendieliza-zaintzalle bat iturritzat arturik egin nun ipui bat **Euzko-Gogoarako**, baiña ez da argitaratu oraindikan.

5

Jaungoikua munduan ibilli zeneko istoriya

Jesus eta San Pedro ibilli zian munduan.

Erri batera joan, eta sermoia eitten-tzuen Jesusek. Gero, beste errira joateko arrapatzen zuten itxian, pobriek bezela jan eta lo eitten zuten.

Gau batian jo zuten atia itxe batian. Esan-tziyoten etzutela iñor artuko. Eta joan ziran beste itxera.

Beste itxian eman zioten afa-riya eta oi xuriya. Ama ta alaba joan-tziran belar tartera lo eittera, oikeri oia emateko. Urrengo goizian eman-tziyoten gosariya, eta Jesusek esan-tziyon andriari:

—Orain zenbat pagatu bear dut nik?

Esan-tziyon andriak :

—O!, baterez.

Eta Jesusek esan-tziyon:

—Bueno, orduan nai al duzu alaba bezin gazte jarritzia zu?

—Bai poxik!

Eta gero, Jesus ta San Pedro joan-tzian.

Andria ora ikusi orren gaztia, eta ausokuak esan-tziyon:

—Zu nola orren gazte ein-tzara?

—A! Atzo etorri ziran pobre aiek, ostatua eman niyolako.

Eta beste andriak esan-tziyon:

—Gure itxian mintzatu zian, biño nik esan niyon ez nuela iñor nai. Esa'iyozu urrengo etortzian, etortzeko nere itxia.

—Bueno, (esan-tziyon gazte-tuarek).

Urrengo etorri ziranian, Jesusek esan-tziyon:

—Ola andretxua, ola! Zer moduz?

—Ai, ondo, ondo! Biñon gaur lo eittera joango dira beste itxera. Ez axerratu, ezta nik nai ez dizutelako artu.

Esan-tziyon, auzoko andriek aiken itxera joateko esan-tzuela.

—Bueno, bueno, —(esan-tziyon Jesusek)— biñon urrengo aldiyan berriz ere onera etorriko gara.

Joan-tziran beste itxera, eta eman-tziyoten afari ederra, oi ederra, eta urrungo egunian gosari ederra.

Galdetu ziyon Jesusek:

—Bueno, zemat pagatu bear dizut, andria?

—Oi! batere'z.

Jesusek esan-tziyon:

—Bai, bai, goizian asitzen

zaten lanian arratsian gelditu-
ko zate.

Alabak esan-tziyon:

—Ama, dirua kontatzen asi
bea'ugu.

Amak esan-tziyon:

—Neska, lenbizi ur pixka bat
eran-ta.

Eta gero, egun guziya ura
eraten (6).

6

Lapurren erregia

Omen-tzian lau edo bost la-
purrr, eta zuten lapurr-erregia.

Juaten omen-tzien itxietara.
Galdetzen omen zuten zenbat
diru zen itxian, eta erdiya ken-
du. Bimilla bazuten, milla ken-
du.

Egun batian baserritarr ba-
tek in-tzuen juezien itxie galdu.
Arratsa artan jua ziran jue-
zen itxera, eta esan ziyoten:

—Juez jauna, beorrek eman
bear digu irabazi duen guziya.

Eta urrengo egunian juezak
biali ditu guardi-zibill pareja
bat lapurren itxera, eta eraman
dute lapurren erregie kartzela-
la. Joan da jueza ikustera, eta
esandiyo:

—Orain nik iltzeko senten-
tziye emango zaitut.

Baiñon errege-lapurrrak eran-
tzuten diyo:

—Jauna, beorrek sententziya
emanagatik, Jaungoikuak ezpa-
du ematen, ez nau ilko.

An-tzagon kartzelan lapurr
ori, eta egin dute eliza batetik
lapurreta aundi bat, eta jua
dira ikustera xolo gustiyek. Bi-
ño etzuten billatzen nondik sar-
tzen zen lapurra, eta egun ba-
tian jua-tzen bikariyua jueza-
gana, eta esan-tziyon:

—Kartzelan dagon gizon
orrek jakingo du lapurr oyeke
nondik sartzen dien.

Eta jua dira kartzelara. Gal-
detu diote, eta susmatzen badu
nondik sartzen diran lapurrrak,
biziya libre utsiko ziyotela.

Lapurren erregiek esan-tzi-
yoten:

—Egiyaz?

Eta bikariyuak esan-tziyon:

—Bai, egiyaz.

(6) Salvadora R.A. andreari artua, 1959-IIIñ. Gai onek bigarren ipui bat ere ba-du, eta bigarren ori, erderara itxulita, Madrillen Vicente García de Diegok argitaratzen dun **Revista de Dialectología y Tradiciones Populares** aldizkarian eman nun, beste lau elezarrekin batera (XVga-rren tomoan, 1959gn. urtean, 68-69gn. orrialdeetan), **Leyendas y Narraciones Bidasotarras** tituluagaz.

Orduan, esan-tzizon gizon orrek:

—Gaur gabian egin bezate elizan erdiyan sua, eta kanpotik begitu nondik ateratzen den kia.

Begitu zuten, eta ikusi zuten nola ateratzen zen goiko kanpantorre azpitik. Kanpantorreko bobedan, zulua zeukan arria atera eta andik sartzen zen lapurra.

Lapurren erregiak esan-tzivoten:

—Orain jarri paria ortan bian

barrika erdi pike, eta sokan ara jatxiko da, eta an sartu eta bertan geldituko da.

Eta ala egin-tzuten.

Gabian sartu zen lapurra, eta gero pikian sartu zen denboran bere burua il-tzuen berak, galdua ikusi zelako.

Eta orduan lapurren erregiak esan-tzizon juez jaunari:

—Juez jauna, ez dezala pentsatu Jaungoikue bañon geiago dela beori. Nere biziya Jaungoikuak eskapatu du (7).

7

Olentzero

Olentzero omen-tzen ikaskillia, eta eraman emen-tzittuan egurrak Jesus jaio zen tokira, eta eñ emen-tzuen sua. Eta Amabirjiñak esan emen-tzizon:

—Olentzero, zure eguna beti izango da señalatua, erregaloik onena zuk eñ duzu. Otzak gaundezen, eta sua egin diguzu.

Orregaitik esaten da Olentzeron kantua:

Olentzero joan zaigu
Mendira lanera
Intentziyuarekin
Ikatz egittera,
Adittu zuenian
Jesus jayo zela
Azkarr joan zitzaigun
Parte ematera (8).

8

Ezkurreko erua

Ezkurren zuten seme bat erua, eta biali zuten astuakiñ egurketara. Iyo zen arbol ba-

ten gañera eta jarri zen adar baten gañian, eta asi zen adar ora mostutzen.

(7) Salvadora R.A. andreari artua, 1958-VII-8n. Aman entzunda ikasi zun.

(8) Salvadora R.A. andreari antza 1959-III-24n.

- Eta gizon batek esan-tziyon: —Gizon au il da, eta guazen eramatera itxera.
 —Aixkiria, erori eingo zara!
- Eta bestiak esan-tziyon: Abitu zian bizkarrian artuta, eta ziran bi bire. Bat zen deskantsuan, da bestia maldagotti.
 —Zuk zer dakizu? Orduan badakizu noiz illko naizen? Eta esaten asi ziran:
 —Bai. Astu orrek iru estul eittian. —Guazen maldagotti.
 Autsi zuen adarra, eta erori zen lurrera. Eta bestiak:
 —Ez.
 Esan-tzuen: Eta esan-tzuen eruak:
 —O! Gizon orrek esan beze- —Ni bizi nintzanian, emen-
 la, ni oraiñ illa nago. dik gottik joaten niñuan.
 Eta jarri zen etzan luze-luze, Eta esan-tziyoten:
 eta etorri zen jendia korrika. —Joan an ba oaiñ ee (9).

9

Ogiya galdetzeko modua. (Aurra jostatzeke kanta)

Joa'nitzan amarena,
 galdetu niyon "papa" (10).

Amak esan-tziran,
 attak-tzuela giltza.

Joa'nitzan attarena,
 galdetu niyon giltza.

Attak esan-tziran
 emateko pluma.
 Iya zeñen pluma,
 kayuaren pluma.

Joa'nitzan kayuana (11),
 galdetu niyon pluma.

Kayak esan-tziran
 emateko esne.
 Iya zeren esne,
 Beyaren esne.

Joa'nitzan beyarena,
 galdetu niyon esne.

Beyak esan-tziran,
 emateko belarr.
 Iya zeren belarr,
 lurraren belarr.

Joa'nitzan lurrarena,
 galdetu niyon belarr.

(9) Salvadora R.A. andreari artua, 1959-Vn.

(10) "Papa": ogiya.

(11) Kayua: Itxas-txori txuri-txuriya.

Lurrak esan-tziran,
emateko iriti.
Iya zeren iriti,
Erreruaren iriti.

Joa'nitzan erreruana,
galdetu niyon iriti.

Erreruak esan-tziran,
emateko urdai.
Iya zeren urdai,
txerriyaren urdai.

Joa'nitzan txerriyana.
galdetu niyon urdai.

Txerriyak esan-tziran,
emateko eskurr.
Iya zeren eskurr,
Aitzaren eskurr.

Joa'nitzan aitzagana,
galdetu niyon eskurr.

Aitzak esan-tziran,
emateko aize.
Iya zeren aize,
itxasuaren aize.

Joa'nitzan itxasuarena,
galdetu niyon aize.

* * *

Itxasuak neri aizia,
nik aitzari aizia.

Aitzak neri eskurra,
nik eskurra txerriyari.

Txerriyak neri urdaya,
nik urdaya erreruari.

Erreruak neri iritiya,
nik iritiya lurrari.

Lurrak neri belarra,
nik belarra beyari.

Beyak neri esnia,
nik esnia kayuari.

Kayuak neri pluma,
nik pluma attari.

Attak neri giltza,
nik amari giltza.

Amak neri "papa"
Iretzat txakurren kaka (12).

10

Aurak sokan saltoka jostatzeke kantatzen zituzten kantak

Bat,
Bi,
Iru,
Lau,
Eskontzen da
mundu au.

Arratoya fraile.
Kukua meza emaile.
Txipiti,
Txapata,
Fuera!

(12) Salbadora R.A. andreari artua. Gazte-gaztiak zirala kantatzen zuten neskak, sokan saltoka jostatzen zutenian.

Atsua oyetik bera
San Martziel aldera (13).

* * *

* * *

Xango-mango,
Aurra nongo?

Bat,
Bi,
Iru
Lau,
Xardiña ta bakalau.

Ona bada,
guretzako ;
gaixtua bada,
prailliantzako.

Bortz,
Sei,
Zazpi,
Ezkabiltza gaizki.
Ezkabiltza gaizki (14).

Ura ta mama
goxua,
baso peztziyo
gaixtua (15).

11

Esacerak

San Simon y [sic] Juda
Uda joan ta negua el du da (16)

Katua lo dagon bittarte
arratoyak jaya (19).

Burua aña lapurr
eta Konsejuan aundiyeak (17).

Urdai azpikuak, ezkiñ batian
[gizena,
eta bestian giñarra (20).

O martxo martxo bustantxo
oantxe utsi nak ez ardi ez ar-
[tantxo (18).

Ijeniyo txarra eta muturra luze,
aitxurra eta palak mudatuko
[naute (21).

(13) Salvadora R.A. andreari artu nion, 1959-VII-19n.

(14) Berako Prudentxi Altzugaray Terretxea, 79 urtedun andreari artu nion, 1959-VIII-9n.

M.³ G.E. andreak esan zidan (1959-VIII-10n.), Iruritan ere berdin kantatzen zutela.

(15) Salvadora R.A. andreari artu nion, 1959-III-15n. Aurak ixilik egoteko ere kantatzen zaye.

(16) Irunen artua, Salvadora R.A. andreari, 1959gn. urtean.

(17) Id. id.

(18) Id. id. Artantxo: urteko bildotsa.

(19) Id. id.

(20) Id. id. "Orrek esan nai du, denak badugula ijeniyo txarra eta ona".

(21) Id. id. "Gure amak esaten-tzuen inorr erritan aizen denboran". "Erderaz: genio y figura, hasta la sepultura".

Gizona eta otsua,
zeinbat eta itsusiyagua,
ainbat eta ederragua (22).

Gezurra esan nuen Getariyan
ni biñon lenago zen atari-
[yan (25).

Urrutiko eltzia urrez,
Urbilletara guan ta ez,
eta'ere lurrez (23).

Gizon ttiki, galtzak jario;
ikatz orrek zenbadik balio
[(26).

Otsua aipatu
ta otsua atetan (24).

Bai, iriyak egiñbiarrian,
gurdiyak negar (27).

12

Konparaziyuak

Txuriya: Elurra biñon txuri-
yagua (28).

Beltza: Pikia biño beltza-
gua (31).

Gorriya: Infernuko diaurruan
adarrak biñon gorriyua (29).

Berdia: Itxasoko belarra ko-
loria (32).

Begi zan orren sugurra: piper
morrua (30).

Itxusiya: Gezurra biñon itxu-
siyagua (33). — Pekatu morta-

(22) Irungo Lucio Valverde Gal, 89 urtedun jaunari artu nion, 1960n. Juana Gal Gainza bere amari entzun zion.

(23) Oronoz-Mugaireko Mikaela Goñiri artu nion, 1960n. Bere etxian ikasi zun. "Gure attak erraten zun anitz aldiz".

(24) Irungo Pilar Soroeta, 66 urtedun andra alargunari artu nion, 1960n. "Gure amak oittura aundiya zuen esateko norbait agertzen-tzenian, berak aipatzen-tzenian". Ama oyartzuarra zun.

(25) Id. id. Gurasuekandik ikasi zun.

(26) Oronoz-Mugaireko Mikaela Goñiri artua, 1960n.

(27) Irungo Pilar S.-ri artua, 1960n. "Gure amak esaten-tzigun batoren bat kejatzen-tzenian". "Edo: Bai bai, ja! / iriyak negar egiñbiarrian / gurdiyak egiñ".

(28) Irungo Salbadora R.A.-ri artua, 1959n.

(29) Id. id.

(30) Id. id.

(31) Id. id.

(32) Id. id.

(33) Id. id.

la biñon itxusiyagua (34). — Zorra ukatua biñon itxusiyagua (35). — Tximeniya autsiya biñon itxusiyagua (36). — Astuan ipurdiya biñon itxusiyagua (37). — Sokillan mallua biñon itxusiyagua (38). — Onoria galdutzia biñon itxusiyagua (39). — Deabrua baño itxusiyagua (40).

Alferra: Zorriya biñon alferragua (41). — Guardiyan txamarra biñon alferragua (42). — Gibela biñon alferragua (43).

Gaixtua: Deabrua baño gaixtuaua (44). — Diaurruan lama biñon gaixtuagua (45). — Abian jaboya biñon gaixtuagua (46).

Poza: Txakurra kukusurik gabe biñon pozago (47). — Aurarak zapata berriyakiñ bezin pozik (48). — Txoriyak kantari biñon pozago (49). — Katua xagua jaten biñon pozago (50). Gaztiak erromeriyen biño pozago (51). — Auntza untza jaten biño pozago (52). — Andria kafia artzen biño pozago (53).

Pollita (54). — *Pollitta* (55): Arrosa baño pollitakua (56). — Grabeliña bañon pollittagua (57). — Pinpilnposa biñon pollittagua (58). — Itxasua geldirik dagon koloria bezin pollitta (59).

(34) Id. id. Iruritan ere esaten dute; ala esan zidan M.³ G.E. andreak, 1959n.

(35) Id. id. Id. id.

(36) Irunen, S.R.A.-ri artua, 1959n.

(37) Id. id.

(38) Id. id.

(39) Id. id.

(40) Berako P.A.T.-ri artua, 1959n. M.³ G.E. Iruritakoari, 1959n

(41) Irungo S.R.A.-ri artua, 1959n.

(42) Id. id.

(43) Id. id.

(44) Berako P.A.T.-ri artua, 1959n.

(45) Irungo S.R.A.-ri artua, 1959n.

(46) Id. id.

(47) Id. id.

(48) Id. id.

(49) Id. id. M.³ G.E. Iruritakoari ere berdin, 1959n.

(50) Id. id., Irunen.

(51) Id. id.

(52) Id. id.

(53) Id. id.

(54) Iruritan.

(55) Irunen.

(56) Iruritako M.³ G.E.-ri artua, 1959n.

(57) Irungo S.R.A.-ri artua, 1959n.

(58) Id. id.

(59) Id. id.

Arronkazua: Ollarra baño arruankua (60). — Katua otsailian biñon arruagua (61). — Eguaizia biñon arruagua (62). Eguaizia baño arruagukua (63).

Motela: Baria baño motelagokua (64). — Potoko eztiabiño motelagua (65).

Irun-Urantzunen
1961-IV-6'n.

-
- (60) Iruritako M.³ G.E.-ri artua, 1959n.
 (61) Irungo S.R.A.-ri artua, 1959n.
 (62) Id. id.
 (63) Iruritako M.³ G.E.-ri artua, 1959n.
 (64) Id. id.
 (65) Irungo S.R.A.-ri artua, 1959n.



D. Telesforo de Aranzadi escalando la cumbre del Monte Espigüete, en los Pirineos Cantábricos. 1901